



MUNTAKETA JARRAIBIDEAK

Orekaren jokoa



www.aktibatuz.org
www.farmaceuticosmundi.org

 60 min.

 4 talde

JOLASARI BURUZ

Jolas kooperatibo bat proposatzen dugu: aurkitu dituzten fitxak (eta jolaserako eskuragarri dauden beste batzuk) mahai flotatzailean jarriko dituzte, orekari eutsiz, eror ez daitezen. Guztien artean, ahalik eta fitxa gehien jarri behar dituzte.

Zailtasunak izango dituzte; izan ere, alde batetik, neurri eta pisu desberdinetako fitxak dira, eta, bestetik, hainbat pertsonak aldi berean jarriko dituzte; beraz, haien artean elkarlanean aritu beharko dute, fitxak eror ez daitezen. Berehala jartzen badira ados eta piezak behar baino lehen jartzeko gai badira, prozesua errepikatzeko eska dakieke, baina pertsona bakoitzak esku bakarra erabiliz (adibidez: eskuinak diren pertsonak ezkerre erabiliz, eta alderantziz).

MATERIALAK

- ▶ **20 fitxa** (maletatxoan daude)
- ▶ **Oinarri zirkular 1** (irakurri muntatzeko jarraibideak)
- ▶ **4 kono** (irakurri muntatzeko jarraibideak)


MUNTATZEKO JARRAIBIDEAK



Plataforma zirkularra

Erabili material arin bat, adibidez, poliespana edo poliestireno he-datua.


Arina izan behar du, orekari eustea zailagoa izateko, baina, halaber, orekari bere horretan eusteko pisu nahikoa izan behar du.



Zailtasun desberdineko konoak

Tamaina desberdineko 4 kono egingo ditugu. Urratsak:

1. Lortu 4 kartoi mehe (A4 neurrikoak); kolore desberdinetakoak izan daitezke.
2. Eskaneatu QR-a, eta inprimatu txantiloia.



3. Kalkatu eta ebaki 4 konoak banan-banan kartoi meheetan, txantiloia ordenari jarraituz. Kono berri bakoitza aurrekoa baino baxuagoa izango da, eta euskarriaren diametroa handiagoa izango da goiko aldetik (plataformari eusten dion zatia).
4. Itsatsi konoak. Aplikatu barra-kola txantiloia erlantz grisean.
5. Papera okertu bada, egokitu konoak, txukundu puntak eta oinarriak, jolaserako oinarri ona izan dezaten.

